



## **Vidrala taldeko Aiala Vidrioko enpresa batzordeak greba deialdia egin du urtarrileko 8 eta 9rako.**

Vidrala taldeko Aiala Vidrioko enpresa batzordeak mobilizazioetara jotzea erabaki du urtarrileko 8 eta 9rako. Enpresaren jarrera hitzarmen kolektiboko negoziazioetan bultzatu egin du grebaren deialdia. Enpresa honek ez du negoziazioetan zenbait gai landu nahi eta jarrera honek sortarazi egin du langileen haserrea. Bi jardunaldi osoko geldialdiak izango dira, txanda bakoitzean. Gauzak horrela, Enpresa Batzordeak espero du erabaki honekin negoziazioak desblokeatzea eta hitzarmenaren negoziazioekin aurrera jarraitzea enpresak marra gorriak kenduz.